Zaharrak berri

Geltokiko gizonak ez zeuzkan laurogei urte, baina ez zen urruti ibiliko. Iharra zen, batere gizenik gabea, zimela. Egon ezinda zegoen, urduri zebilen hara eta hona, burumakur, harri koxkorrak ostikoka uxatuz eman zuen autobusa iritsi artekoa. Batzuetan burua jaso eta urrutira begira geratzen zen, autobusa ba ote zetorren jakin nahian bezala, gero atzera lurrera so egin, harri koxkorren bat bilatu eta ostikoka ekiten zion, hura uxatu arteko onik gabe. Gernuz zipriztinduta zeuzkan oraindik zapata beltzak.

Arratsaldean kalera irten genuen, liburuak itzuli eta buelta bat ematera. Etxera gentozela, *delicatessen* horietako batera sartu ginen, ahal eta gura duenak eskura zein kutixia dauzkan ikustera. Berria da, handia, Himalayako gatza daukate, esate baterako, xanpain frantsesak, ardoak erruz; erosi bakarrik ez, nahi izatera bertan trago bat hartu eta pintxo bat jateko aukera dago. Mahai guztiak zeuden beteta. Batez besteko adina kalkulatzen aritu nintzen, hilabeteko soldatarekin zenbat xanpain botila erosi ahal nitzakeen ateratzen ibili osteran. Hirurogei? Hirurogeita bost? Astia daukate, modua daukate, eta bizitzaz gozatzeko agindua.

Ez da hitz jokoa: daukagun berriena zaharrak dira.

Jira
Xabier Gantzarain

Paris-Madrid

Sylvie Desbois-Sorbé haserre dago. Kexua, auto-edituturiko liburu bilakatu du gure plazererako. AHT linearen aitzakian Lapurdumeko geltoki aldea eraldatuko da eta Paris-Madrid Hotel merkearen erraustea ekarriko du, kostaldeko nekazarien eta herrien funtsetaz gain. *Les Voyageurs de l'Improbable* jazz musikaz lagunduriko nobela baten antzera irakurtzen da. Neoliberalen obzenitatearen aurkako ezintasunezko harri mokor bat da, irudi eta sentimendu kordela bizigarria.

Azken hogeita bost urteotan hotelera etorri jende berezi eta maitagarrien ingumak lerratzen dira orrialdeetan, istoriaren egiakortasuna bermatuz. Santizpiritu auzoaren egunerokotasuna, Santiagorako beilariak, oporlari bekaitzak eta berezi ki Valentin sutsuaren karkara, beranduago bere buruaz beste egingo zuena, oroitzen ditu soilki Desbois-Sorbé andereak. NY-eko *Chelsea* ospetsua bailitzan. Jabeak Baionako udaletxearekin auzitan daude hondar hilabeteotan diruzko konpentsazio bat eskuratzearren.

A-garapenaren irakaspenei jarraitzen zitzaien hotela hertsia da 2009az geroztik. LGV-aren bizkar *Fouquet's* hartako konjuratuek obratzen ari duten espekulazio operazio erraldoia salatzen du Sylviek.

Memoria ere urratzen baligute?

Bira
Itxaro Borda

Zuzendaria: Martxelo Otamendi
Zuzendariordea: Enekoitz Telleria
Edizio arduraduna: Lurdes Huizi
Argitaratzailea: Euskal Editorea SM
Publizitatea: Iragarri SM
Lege gordailua: SS-0662/03
Batzorde parekidea: 0712184059

Egoitza nagusia: Martin Ugalde kultur parkea. Gudarien Etorbidea, z/g. 20140 Andoain.
Telefonoa: (0034) 943-30 40 30
Faxa: (0034) 943-30 09 43
Webgunea: www.berria.info
Posta elektronikoa: berria@berria.info
Publizitatea: publi@iragarri.net
Harpidetza saila: (0034) 943-30 43 45

Date: 19/01/2011
Exemplaire: 2.351
Editeur: Euskal Editorea s.l.
Directeur de publication: Martxelo Otamendi
Comission paritaire: 0712184059
Delegation Labourd: Lisses 3, 64100-Baiona. Tel.: (0033) 559256220. Fax: (0033) 559254303. E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK
Araba: Bizenta Mogel, 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefonoa: 945-15 04 52. Erredakzioko faxa: 945-14 83 07. Posta elektronikoa: araba @berria.info.
Bizkaia: Uribitarte kalea, 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-435 26 00. Erredakzioko faxa: 94-423 49 75. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.info.
Lapurdi: Lisses, 3. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: 559-25 62 20. Faxa: 559-25 43 03. Posta elektronikoa: lapurdi @berria.info.
Nafarroa: Iratxeko Monasterioa, 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-36 66 22. Publizitatea: 948-36 66 23. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.info.

berria

Bakerako hezkuntza edo «klonen borroka»

Egungo Eusko Jaurlaritzak unitate didaktiko «berriak» aurkeztu zituen aurreko astean, horien bitartez terrorismo-biktimen lekukotzak eskoletara eramateko xedez. Ekimen hori, ordea, taxuzkoak ez diren informazioz beterik ari da azaltzen, eta halabeharrezkoa deritzogu hori guztia argitzeari, gure eskoletako irakasle orok baita gizarte osoak ere erabaki dezan, erantzukizunez, aipatu unitateak erabiltzekoak edo alboratzekoak izan behar ote diren.

Ibarretxeren aurreko Gobernuak Euskadiko Hezkuntza-Sisteman biktimak present egoteko gai korapilatsuari aurre egin omen zion bi Unitate Didaktiko (*Dando pasos hacia la paz. Bakerako Urratsak* eta *Historias que nos marcan*) mahai gainean jarriz. Gaurko gobernuko erantzuleek hori diote. Eta esandakoa esanda, bi unitate horiek «birmoldatu» egin dituzte, baita prentsa aurrean aurkeztu ere, Elkarbizitza demokratikoaren eta Indarkeriaren deslegitimazioaren Plan «birformulatuaren» barruan, hain justu ere.

Historias que nos marcan Unitate Didaktikoa, ordea, aurreko Euskal Gobernuak ez du sekula bultzatu izan. Hasiera batetik baztertua izan zen, biktimen inguruko edukiak alde bakarrekoak izateagatik eta, batez ere, hezkuntza-sisteman sartzeko landu barik eta garatu barik egoteagatik. Hain zuzen ere, bere ikuspegi partziala izan zen Unitate Didaktiko berri bat sortarazi zuena. Unitate Didaktiko berri horrek hiru urte behar izan zituen jaiotzeko, eta hori lan gogorraren, irakasleen prestakuntzaren, ebaluazio zorrotzen eta borondatez parte hartu zuten ikastetxe batzuekin izandako esperientzia pilotuen ondorioz. Horrek guztiak gauzatu zuen Unitate Didaktiko sendoa, orekatua, denon artean negoziatua eta proposamen anitzez josia. Ikastetxeek, beraien erantzukizunez eta konpromisoaz, Euskadin bake-hezkuntza eta giza-eskubideak lan zitzaten, «lanabes-kutxa» eskaintzea izan zen bere bokazioa, erronka zail horretan eskua luzatuz, baina Hezkuntza-komunitatearekiko eta beren profesionalekiko errespetuz eta konfiantzaz.

Unitate horrek idatzizko testigantzak lehenetsi bazituen ere, ez zuen baztertzen zuzeneko lekukotza eskoletara bertaratzea, beti ere ikastetxeen autonomiaren barruan, haiek metodologia eta eduki zehatzak erabaki beharko zituztela. Erabaki hori bai gida ziur batek lagunduta: alegia, esku-hartzearen markoa biktimak ez, baizik eta Nazio Batuek bermatutako Giza Eskubideena eta beraien printzipioena izango zen (alegia, giza eskubideen unibertsaltasuna, zatiezintasuna eta horien guztien arteko menpekotasuna).

Pasa den astean, aldiz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza-Sailak berriro aurkeztu zuen baztertua izan zen «birformulatutako» *Historias que nos marcan* Unitate Didaktikoa eta, Bakerako eta Giza Eskubideetarako Euskal Hezkuntza-Planarekin lehenago egina zuen moduan, «klon» berri bat sortu du, hau da, tresna zientifikoak eta homologatuak erabiliz eta geletan finduz, aurretik landutako Unitate Didaktiko hura, orain, *Dando pasos hacia la paz. Bakerako Urratsak* denak «birlandatze-ebakuntza» jasan du. Berri bat eta ezberdina ateratzeko ahaleginak ere ez ditu egin Hezkuntza Sailak: birformulatutako deslegitimazio-planean idatzitakoari egokitzapena ziurtatzeko behar zituen gutxiengo aldaketa sinbolikoak eta kosmetikoak besterik ez ditu egin. Aldaketa horiek, beste aldetik, ez dute zerikusirik irizpide pedagogikoekin, eta bai, ordea, irizpide politiko hutsekin, jatorrizko unitateak zuen potentzial prepolitiko eta apartidarioa guztiz suntsiturik suertatzen delarik.

Egin diren aldaketen adibide asko jar ditzakegu. Hala nola tortura edo bibliografia «susmagarria» desagerrarazteko egin dituzten aldaketak edota «arriskutsuak» diren erakundeen aipamen edo egitasmoak kentzekoak (horra hor, adibidez, Baketik —Arantzazu-ingurukoak—). Garaiko PSOE-gobernuaren inplikazioarekin hain zuzen ere, Jose Ignazio Zabala eta Jose Antonio Lasaren tortura eta erailketak gertatu zireneko lekukotza (Arantza Lasak emandakoa) kendu egin dute. Bibliografia susmagarria ezezik, beste hainbat kultur-aipamen ere ezabatu dituzte: Athletic edo Realarenak, Everesteko gailurrera euskaldunak heltzearena, Tejerorena, langileen protestaldienak, Euskal Rockarenak… Poliziaren indarkeriaren ondorioz Mikel Salegi biktima izan zenaren arrebak ere emana zuen lekukotza: hori ere desagertu da oraingoan, Santi Brouard edo Josu Muguruzaren ingurukoak bezalaxe. Aurreko Unitate Didaktikoak lantzeko eta inpartzialtasuna lortze aldera eginiko ebaluazio zientifikoak ez daude: Euskal Herriko Unibertsitateak egindakoak, hain justu ere, materialok alderdikeriaren aurrean babesteko. Eta horien ordez eta lehen tentu handiz aukeratua izan zenaren gainean, ugari sartu dituzte ETAren biktimen eta beraien erakundeen mota askotako literatura eta bibliografia, baina, oraingo honetan, mugarik gabe: orotariko estilo zein edukietakoak, batzuk arrazonagarriak, beste batzuk, ordea, desegokiak guztiz, iraingarriak, borroka politikorako moldeetakoak. Eduki horiek, ETAren biktimen testigantza amaigabeak baita Audientzia Nazionalaren epai penal batek eta guzti (egia judiziala eta egia soziala nahastuz), besteen artean, unitatearen oreka eta nortasuna guztiz apurtu dute. Horregatik, hori ikasgeletara eraman nahi izatea ez da inolaz ere bidezkoa edota aproposa, are gutxiago Hezkuntza-komunitatea, beste behin batean, iritzia emateko aukeratik at, baztertu rik, utzi dutenean.

Uste dugu, egiaren izenean, *Dando pasos hacia la paz. Bakerako Urratsak* unitate didaktikoaren izenburua bera aldatu beharko luketela, nahastea eta manipulazioa gerta ez daitezen, egindako aldaketek, gehienetan kosmetikoak eta sinbolikoak, tresna pedagogiko hori desorekatu eta desitxuratu egiten dute-eta. Aldaketok, beste hitzetan, Unitatearen arima, zentzu eta oinarrien atzera eragin ezinezko aldaketa ekarri dute, bestelako unitate bat, «klon» bat, sortuz. Bake-hezkuntzan aurrera egin beharrean, adiskidetzea prestatzekotan, zoritxarrez, gure aurrean duguna, metafora bati helduz, hurrengo era honetara izenda genezake: unitateen arteko talka, «Klonen borroka».

Iritzi hau honakoek idatzi dute: Jon Mirena Landa (Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideetarako Zuzendari ohia), Marije Apodaka (Psikologoa), Gotzon Quintana (Filosofia Irakaslea), Beatriz Ugarte (Bigarren Hezkuntzako aholkularia)